



EMAKUNDE

EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER



NAHIKO! 3-4

ZAINKETA

1

UNITATE
DIDAKTIKOA

IRAKASLEAREN GIDA 1

Irakasle agurgarria:

Ongietorri Lehen Hezkuntzako hirugarren eta laugarren mailarako **EMAKUNDE**ren **NAHIKO Proiektura**. Neska-mutilen, emakume eta gizonen arteko berdintasunerako programa duzue hau. Eskubide eta aukeren berdintasuna, tratu eta arduren berdintasuna. Denetarako berdintasuna, bizitzan eta munduan, bizitzako arlo guztietan eta munduko arlo guztietan


Hezkidetza programa honen helburua **emakumeek jasaten dituzten tratu txarren aurkako prebentzioa** eta sentsibilizazioa da. Tratu txarrak emakume eta gizonen arteko egiturazko desberdintasunaren adierazpen eta ondorioa izanik, gure ikasleek horretaz jabetu eta horren arabera joka dezatela nahi du programa honek. Honela, berdintasuna eta errespetuan, zaintza eta erantzukizun- kideztan oinarrituta eta giza-eskubideak emakume nahiz gizonei arlo guztietan aplikatuz, haien mundua ulertu eta eraiki ahal izango dute.

Giza Eskubideen oinarri nagusi eta azkena den berdintasunak soilik prebenitu eta sahiestu ditzake emakumeek jasaten dituzten tratu txarrak. Gure ikasleak berdintasunerako heziz mundu justuago bat eraiki eta bizi ahal izango dute, non gizonak eta emakumeak, neskak eta mutilek elkarri ongi tratatu eta harreman pertsonal onak eta egokiak izango dituzten, abusu eta mendekotasunik gabekoak, txantai eta mehatxurik gabekoak. Soilik berdintasunerako heziz, gure ikasleak oraingoa baino justuagoa den etorkizuna eta tratu onak gailentzen diren mundu batean bizi ahal izango dira.

Eskerrik asko zure laguntzagatik!

1 HELBURU ETA EDUKIAK

Lehenengo unitateak bi helburu nagusi ditu. Alde batetik, Lehen Hezkuntzako hirugarren eta laugarren mailetarako Nahiko programaren planteamendu orokorra aurkeztea. Bestetik, "zainketaren" kontzeptua eta bizitza publiko nahiz pribatua honekin erlazionaturiko guztia landu eta aztertzea.



Lehen Hezkuntzako hirugarren eta laugarren mailetan **Nahiko programaren laburpena** "Ikaslegoaren koadernoaren" aurkezpen gutunean planteatzen da. Testu honek programaren logotipoa azaltzen aurkezten du Nahiko; tratu txarren ondorioz negar egiten duen puntuerdia grisa eta berdintasunari esker barre egiten duen puntuerdia berdea. Bien artean, Nahikok munduaren eta honen inguruan ikasleek duten ikuspegiaren aldaketarako saiakera egin nahi du.


Izan ere, ziklo honetako sei unitate didaktikoen bitartez, hiruna maila bakoitzean, gure ikasleei gure mundua tratu txar eta tratu onak sortzen dituzten **faktoreak ezagutzen lagundu nahi die**. Faktore hauek ezagutzen lagundu, neska-mutilek lehenengoak sahiestu eta bigarrenen bila joateko.

Faktore hauek asko eta anitzak dira. Jarrerak, ekintzak, jokaerak, hitzak, erlazioak, sentimenduak, sinismenak, ereduak... gure eguneroko etxeko, eskolako, auzoko, enpresetako, telebistako, prentsa, etabarreko bizitza osatzen dutenak.

Faktore hauek gizarteratzen gaituzte, hezitu, "normala" zer den eta zer ez esaten digute, gure errealitatea ulertu eta antzematen erakusten digute, gertatzen edo desiatzen duguna kontatzen eta interpretatzen laguntzen digute, gure ingurua ezagutu eta bertan jokatzeko laguntzen digute.

Pertsona bakoitzarengan eragiten duten faktoreak dira, eta aldi berean, pertsona bakoitzak barneratu, onartu, erreproduzitu, transmititu... ditzake edo kritikatu, aztertu, sahiestu, aurka egin... maila ezberdinetan. Faktore hauenpean gelditu gaitezke, "dagoenak eramanda", eredu nagusienak eta belaunaldiz-belaunaldi transmititutako balio tradizionalek gidatuta, eta ondorioz, emanda dagoena erreproduzitu. Edo inizatiba eta ardura hartzen saiatu gaitezke, aldaketaren aukeraz galdetu, jarrera eta jokaera berriak garatu eta alternatiba justu eta egokiagoak proposatu.

Gure ikasleek eragiteko bi aukera hauek ezagutu behar dituzte, eta etengabean bien artean bat hautatzen dugula jakin ere bai. Hau ezagutzeko oinarritzkoa da **kasu bakoitzean kontziente eta askeago erabaki dezaten**, arduratsuak izan daitezen, haien mundua eta bizitzaren jabe egin daitezen. Horretarako faktore horiek ezagutu behar dituzte, identifikatu, harreman pertsonalen mailako eraginak antzeman (tratu txar eta onak) eta haien bizitzarako zeintzuk txertatu nahi dituzten eta zeintzuk ez.



Mundua tratu on edo txar gehiago edo gutxiagorekin eraikitzeko **zainketa** dugu kontzeptu nagusienetako bat (edo faktore asko barneratzen dituen oinarritzko kontzeptua). Pertsona bakoitzaren zainketa, beste pertsonena, harremanena, naturarena, sormenarena... planetaren zainketa.

Ziur asko gure ikasleagoak zailtasun handirik gabe ulertuko du eta gainera zerbait garrantzitsu eta beharrezkoa irudituko zaio. Baina, nola antolatzen da zainketa?, non eta nola egiten da?, **zeinek egiten du zer?**, baloratzen al da?, zein baloratzen da eta zein ez?, zergatik?, zer ondorio ditu?...

Jeneralean, eta antzematen duten helduen errealitate sozialaren eraginez eta imitazioz, **eredu maskulinoaren unibertsalizazio** bat ematen da adin honetako neska-mutilen artean, eta baita haien balore, esperientzi, interes, zaletasun, arau, jokabide, etabarren balorazioaren indartzea ere. Helduen mailan zeintzuk nagusitzen diren eta zeintzuk ekartzen duten arrakasta konturatzen dira, eta gehiegi baloratzen eta imitatzen hasten dira. Honek **eredu femeninoa gutxiestea** dakar, bere balore, esperientzi, interes, zaletasun, arau eta jokabide... guztiekin.

Tradizionalki zainketa eredu femeninoari egokitu zaionez, honen gutxieste prozesuak zainketaz arduratzen diren pertsonen (emakumeak gehienetan) eta **zainketa beraren ospea-galtzea, ezereza eta marginalizazioa** ekarri ditu. Etxeko esparruan itxita, arlo publiko eta sozialean balore eta aitortzarik gabe, familiaren zainketa batzuen (gizonena gehienetan) ikaragarritzko esplotazioa bihurtu da, beste batzuen gainean (emakumeak gehienetan).

Eredua hau **mundu laboralean** ere erreproduzitzen da, zainketari lotuta azaltzen diren sektoreetan. Honek guztiak onartezina, maltzurra eta etorkizunik gabeko eredu familiarra eta soziala osatzen du.

Ondorioz, ez emakumeek ez gizonek, **ez neskek ez mutilek, ez dute zainketaz arduratu nahi**, benetan inportantea den horretan murgiltzeko, gizonen munduan murgiltzeko, zama eta molestia handia delako, aukera eta debora kentzen duelako. Hala ere, ez da zaila zainketarik gabeko jendarte eta mundu baten ondorioak imajinatzen, eta honek gure garapen eta biziraupenerako suposatuko lukeen arriskua.

Hori dela-eta, lehenengo unitate didaktiko honek **zainketa aldarrikatzen du**, eta horrekin batera, eredu femeninoaren praktika, balore eta jakintza onuragarriak. Beharrezkotzat jotzen ditu, **ez soilik neskentzako, mutilentzako ere bai**, emakume eta gizonentzako. Ikasketa horiek gabe ezingo dute inoiz, ez emakumeek ez gizonentzako autonomia eta arrakasta izan euren bizitzaren eguneroko etxeko eta familia arloan. Horiek gabe ez dira osoki garatutako pertsonak. Pertsona osoak izateko zainketaren osagarri guztiak ezatugu behar dituzte, era egokiak hierarkizatu behar ditzuzte eta norberaren erantzukizuna onartu behar dute esparru indibidualean, pertsonalean nahiz familiarra eta sozialean.

Zainketaren eta pertsonen ongizatearekin loturiko ohizko eredu femeninoaren ekarpen eta onuren aldarrikapenek arlo pertsonala eta etxeko esparrua gainditzen dituzte, **lan mundura eta gizartera** ere iritsiz. Batetik, gizaldi honetako gizarte konplexuan zainketa ezin da aurrera eraman gizarte eta erakunde publikoen eskuhartze handi bat ez badago. Bestetik, edozein eratako lan-jardun eta gizarte lanetan, gure munduaren esparru publikoak ere zainketa kulturaren helburuak, edukiak eta tresnak premiazkoak ditu, une honetan unibertsala eta nagusia den eredu maskulino hipertrofiatu suizidari aurre egin eta oreka emateko.

2 MATERIALAK ETA EKINTZAK

Unitate didaktiko honek **hiru jolas edo material osagarri** hauek ditu:

- 1.- "Zainketa!" jolasa (familiaka jolasteko kartak).
- 2.- "Piramidea" jolasa (puzzle edo solitarioa).
- 3.- "Sena ala heziketa?" jolasa (dominoa).



Hauetarako gomendatutako ekintzak:

Kartak, fitxak... ezagutu. Banatu eta komentatu, horien deskribapenak egin. Harritzen gaituzten horiek, gustatzen zaizkigunak edo ez... interesatzen zaizkigunak aipatu eta zergatiak azaldu. Horma-irudietan, mapa kontzeptualetan sailkatu. Laburpenak, erakusketak, aurkezpenak egin... Momentuko berriein lotu, eskolako gertakariekin...

Kartak, fitxak... asmatu, baietza edo ezetzarekin soilik erantzun daitezkeen galderen bitartez, logika eta aukerak kanporatzearen bitartez.

Bestelako antolaketa baten bidez, bestelako kontzeptuekin, **kartak, fitxak... sailkatu.** Ikusi zer testurekin lotu edo multzokatu dezakegun irudi bat, eta alderantziz. Etab.

Familia, talde, piramidearen mailetara... **kartak, fitxa berriak... gehitu.** Testu eta irudi berriak asmatu. Familia, talde, testu, irudi... berriak sortu.





EMAKUNDE

EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER



NAHIKO! 3-4

ZAINKETA

1

UNITATE
DIDAKTIKOA


IRAKASLEAREN GIDA 2

3 "ZAINKETA!" JOLASA

Taldeka jolasteko mahai-jolasa. **60 kartako bi baraja berdin-berdinak** bi taldetan jolasteko. Barajak berdinak dira aurrekaldetik, soilik atzekaldeko kolorea aldatzen da errazago identifikatu eta jasotzeko.

Baraja bakoitzak **15 familia edo gai ezberdin ditu**, bakoitzak lau karta dituelarik. Ondorengo kontzeptuak azaltzen dira:

1. Umeen zainketa.
2. Sendatzeko zainketa.
3. Pertsonen zainketa.
4. Elikadura, osasuna.
5. Osasuna.
6. Babesa, etxea.
7. Heziketa.
8. Larrialdiak.
9. Asialdia, kultura.
10. Ongizatea.
11. Segurtasuna.
12. Erantzukizunkidetzeta.
13. Parekotasuna.
14. Elkarren ardura eta konpainia.
15. Duintasuna, berdintasuna.



Jolasaren dinamika:

Aldagai guztiak kontutan hartuta, garrantzitsua da familia/laukotea osatzea lortu duenak, gainontzekoei **erakutsi eta azaltzea**: zainketaren alde hori nola ulertzen duen, ezagutzen duen edo ez, egiten duen edo ez edo bere etxean, familia, auzoan... zeinek egiten duen, garrantzitsua den edo ez eta zergatik, familia horri kartaren bat gehitu edo kenduko liokeen, etab.

Ezaguna den "**Burro!**" karta-jolasaren antzera jolas daiteke. Jolasean parte hartuko duten pertsonen adinako karta familiarekin jolasten da. Nahastu eta partehartzaile bakoitzari lau karta banatzen zaizkio. Hiru esatean, partehartzaile bakoitzak eskubian duen lagunari karta bat pasatuko dio, buruz behera. Familia bereko lau karta biltzen dituen lehenengoak, eskua mahai erdian jarri eta "zainketa!" esango du ozenki. Gainontzekoek eskua gainean jarri beharko dute. Eskua jartzen duen azkenak galdu egingo du. Azkeneko zati hau sahiestu daiteke eta, eskuak pilatu gabe, zuzenean azalpenera pasa.

Familia-karta baraja bat balitz bezala jolastu daiteke. Partehartzaile bakoitzari lau karta banatzen zaizkio, eta gainontzekoak mahai gainean jartzen dira buruz behera. Txandaka, partehartzaile bakoitza familia osatzeko falta zaion karta eskatzen doa gainontzeko kideei. Asmatzen badu, karta eman eta txanda hurrengo partehartzaileari pasatzen da.

Bigarren dinamika honetan, familia gehien biltzen duenak irabazten du. Bai kasu honetan, bai aurrekoan, konpetentzia sahiestu daiteke pertsona guztien artean eta denbora-tarte mugatu batean familia guztien bilketa, hauen zenbakien arabera lortzea, etab. proposatuz.

Azkenik, familia bakoitzeko kartak (1etik 4ra) eta familiak zenbakituta daudenez (1etik 15era), zenbakietan oinarrituta jolastu daiteke, ohiko baraja-karta bat balitz bezala, hala nola, seien jolasa, solitarioak egitea, etab. Paloa kartako bigarren zenbakiak ematen du (1etik 4ra) eta lehenengo zenbakiak posizioa (1etik 15era).



4 "PIRAMIDEA" JOLASA


Taldeka jolasteko mahai-jolasa. **50 kartako bi baraja berdin-berdinak**, bi taldetan jolasteko. Barajak berdinak dira aurrekaldetik, soilik atzekaldeko kolorea aldatzen da errazago identifikatu eta jasotzeko.

Baraja bakoitzak kolore ezberdinetako **5 maila ditu eta maila bakoitzak 12, 11, 10, 9 eta 8 karta** hurrenez hurren. Ondorengo kontzeptuak azaltzen dira:

- Lehenengo mailan, etxeke zainketa (12 karta).
- Bigarren mailan, gizartearen zainketa (11 karta).
- Hirugarren mailan, azpiegiturak (10 karta).
- Laugarren mailan, gizartearen kultura (9 karta).
- Bosgarren mailan, norberaren kultura (8 karta).

Jolasaren dinamika:

Piramidearen bukaerako tamaina eta proposatutako erronkaren arrakasta edo porrota edozein direla ere, garrantzitsuena jokaldi bakoitzean **maila bakoitzeko kartak komentatzea** da: beharrezko oreka piramidean hazi ahal izateko, mailen arteko hierarkia, etab.



Barajako fitxa guztiak erabiliz piramidea eraikitzea da helburua. **Puzzle edo solitario** baten antzera, fitxak edo kartak bere mailan (kartetan datorrena) soilik kokatu daitezke. Lehenengo mailatik kokatzen hasten dira. Karta bat hurrengo mailan kokatu ahal izateko, aurreko mailako biren gainean egin behar da.

Kartak nahastu, partehartzaileen artean banatu, eta sobran daudenak (jolasean dauden partehartzaileen adina, gehienez) buruz behera jartzen dira mahai gainean. Jolasteko txanda bat ezartzen da eta piramidea eraikitzen hasten da. Partehartzaile bakoitzak txandako fitxa bat jarriko du. Lehenengo mailan behin bi karta jarrita, bigarren mailako bat jartzeko aukera egongo da.

Partehartzaileak dituen fitxetatik bat ere ezingo balu jarri, mahaiko bat hartuko du. Kokatu badezake, horixe egingo du eta jolasak aurrera jarraituko du. Hartutako fitxa jartzeko aukerarik ez badu, mahai gainean buruz gora utzi eta beste bat hartuko du. Kokatu badezake, horixe egin eta txandak jarraituko du. Mahaian dauden fitxa guztiak altxako balitu, horietako bat bera ere kokatu ezinik, jolasa bukatutzat emango genuke, taldeak ez luke barajako fitxa guztiekin piramidea eraikitzeko erronka lortu.

Partehartzaile batek **bere azken fitxa kokatzean**, mahaian gelditzen direnak nahastu eta hurrengo txandarako bat hartuko du. Behin mahaietako fitxa guztiak hartuta, txandak fitxa guztiak kokatu arte jarraituko du taldeak jokaldia irabaziz, edo jolasaren txandari jarraituz, norbaitek bere fitxa kokatu ezin duenera arte, eta ondorioz taldeak jokaldia galduz.




5 "SENA ALA HEZIKETA?" JOLASA

Taldeka jolasteko mahai-jolasa. **54 domino-fitxako bi jolas berdin-berdinak** taldeka jolasteko. Domino jolasak berdinak dira aurrekaldetik, soilik atzekaldeko kolorea aldatzen da errazago identifikatu eta jasotzeko.


Jolasaren dinamika:

Domino-fitxa bakoitzak elkarren artean eta jolasaren beste fitxa batzuekin lotzen diren **irudi bat eta esaldi bat** daramatza. Irudi bakoitza esaldi bat baino gehiagorekin lotu daiteke eta esaldi bakoitza, irudi ezberdinekin. Jolasaren muina **erlazio edo lotura hauek topatu, komentatu, aztertu edota eztabaidatzea** da. Esaldi eta irudi batzuk irekiak edo zalantzarakoak dira nahita, interpretazio edo ulertzeko modu ezberdinak onartzen dituztenak. Honetaz baliatuta, ikasleekin hausnartzeko aukera egongo da/egon daiteke: sena ala heziketa?, natura ala kultura?, jaino ala ikasi egiten dugu?, herentzi genetiko ala apendizai soziala?, nola ikasten dugu?, zer dela-eta ikasten dute emakumeek eta ez gizonek edo alderantziz?, etab.


Jolasaren dinamika dominoarenaren berdintsua da, irudi eta esaldi bat elkarlotuz, eta inoiz ez bi irudi edo bi esaldi. Fitxen katea banatzen utziko lukeen fitxa doblerik ez dago, hortaz, kate bakarra izango da eta honetan datza jolasaren zailtasuna: **partehartzaile guztien artean** eta txanda errespetatuz, **fitxa guztiekin fitxa-kate bakarra** lortzea. Era tradizionalen jolastu daiteke ere bai, fitxarik gabe gelditzen den lehenengo partehartzaileak irabazten duelarik.



Emakume askok
nola egin ikasi



Gizon askok
nola egin ikasi



Emakumeek eta
gizonezkoek
berdin egin
dezakete.